

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK

LORENZO ZUBILLAGA GOICOECHEA
MARIA CRISTINA VAL SARDÓN
IÑAKI ELIZALDE ZUBILLAGA
NEREA YEREGUI BALDA
ANDER PRADOS OTAMENDI
AITZIBER OTAMENDI ECHARRI

BERTARATU EZ DIRENAK

IGOR OTERMIN EGUIA

IDAZKARIA

Joanes Aleman Ollo

Betelun, udaletxeko bilkura gelan, 2025eko abuztuaren 26an arratsaldeko zazpi eta erdiak direnean, Lorenzo Zubillaga Goicoechearen jaunaren lehendakaritzapean eta egintzaren fede ematen duen Joanes Aleman Ollo idazkariak lagundurik ondoan aipaturiko zinegotziak elkartu dira.

Udal bilkura dagokion deialdiaren ondoren egin da, erreglamentuan ager den aurrerapenarekin eta deialdia beraren eta gai zerrendaren ale bat udaletxeko iragarki oholean iragarri ondotik.

Ohiko izaera duen bilkura irekirik eta lehendakaritzak publikoa dela esanik; Idazkariak bilkura hasteko behar den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztaturik; gai zerrendan diren ondoko puntuak aztertzeari ekin zaio.

1. 2025-07-29KO UDAL BILKURAKO AKTAREN ONARPENA

Deialdiarekin batera banatu den 2025-07-29ko bilkurako aktaren inguruan udalbatzako kideren batek zerbait esateko duen galdetu du lehendakariak.

Zinegotzi bakar batek ere ez du deus adierazi.

Lehendakariak akta bozkatzera ekarri eta udalbatzak aho batez onartu du.

2. ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENAK:

1. Edurne Malcorra Ochotorena

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko uztailaren 24an, 48/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Edurne Malcorra Ochotorenari hirigintza baimena ematea Beteluko 1. Poligonoko 50. Lursailean dagoen Txikinean terrazaren estalkia egiteko.

2.- Juan Manuel Garmendia Goicoechea

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko uztailaren 28an, 49/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Juan Manuel Garmendia

Goicoecheari lehenengoz okupatzeko baimena ematea Beteluko 1. Poligonoko 12. Lursailean dagoen Atabalenea etxeko 1. Solairuko bi etxebizitzendako.

3. Juan Manuel Garmendia Goicoechea

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko uztailaren 28an, 50/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Beteluko 1. Poligonoko 12. Lursailean dagoen Atabalenea etxeko hirugarren solairuan landa-ostatua ezartzeko eskatzaileari hainbat agiri eskatzea.

4. Ordainketa agindua

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko uztailaren 29an, 51/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: 2025eko uztailaren 29an egindako osoko bilkuran onartu ziren fakturak eta onartu ziren akordioetatik eratorritako ordainketak egitea.

5. Basalan Arrospide SL

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko abuztuaren 6an, 52/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Basalan Arrospide SLri baimena ematea mendi-pistak eta auzo-bideak erabiltzeko baso-kamioiarekin igarotzeko (Lulotatik Betelura aterako den aprobetxamenduagatik).

6. Jose Ignacio Yeregui Arlanzon

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko abuztuaren 7an, 53/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Beteluko 1. poligonoko 237 eta 9 lursailak elkartzeko lizentziarik behar ez dela deklaratzeko.

7. Iñaki Cortajarena Salaberria

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko abuztuaren 22an, 54/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Baimena ematea Iñaki Cortajarena Salaberria jaunari Betelun 13 oilorendako eta 2 ahuntz-bururentzako etxeko abeltzaintza-instalazioa jartzeko.

3. BETELUKO ARAXES ESKOLAK AUTOKONTSUMORAKO 60KWKO EGUZKI-INSTALAZIO FOTOVOLTAIKO BAT JARTZEKO PROIEKTUA

Beteluko Udalaren asmoa da Araxes Eskualdeko Ikastetxe Publikoaren estalkian autokontsumorako 60kwko eguzki instalazio fotovoltaiko bat jartzea.

Ikusita aipatutako proiektuaren lanak esleitzeko hasitako kontratazio espedientea

Ondoko akordioa proposatu da:

1. Espediente honetarako egindako plegu arautzaileak onartzea.

2. Hornidura kontratua esleitzeko proposamena egiteko Kontratazio Mahai hau izendatzea:

Lehendakaria: Lorenzo Zubillaga Goicoechea

1. bokala: Iñaki Elizalde Zubillaga

2. bokala: Igor Otermin Eguia

3. bokala: Unai Jiménez Villanueva

Idazkari bokala: Joanes Aleman Olo.

Lehendakariak akordioa bozkatzera ekarri eta batzarrak aho batez onartu egin du.

4.- HAUR HEZKUNTZAKO ZERBITZUAREN KUDEAKETA BETELUKO “SORGINTXO HAUR ESKOLA” HAUR HEZKUNTZAKO LEHEN ZIKLOKO IKASTETXEAN KONTRATUAREN ESLEIPENA

Mahai gainean utzi da gai zerrendaren puntu hau kontratazio mahaiak proposatutako esleitzailleak ez baitu oraindik eskatutako dokumentazioa aurkeztu.

5. FAKTUREN ONESPENA

	KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
Baiza Motor	F. I25-1976	124,30 €
Venus Campos	F. DFA 45	2.833,41 €
IDM Medical	F. 1386	131,07 €
Angelines Carrillo Ruiz	F.A13/2025	90 €
Brico Depot	F. 3755	30,28 €
Imprenta vital	F. 181	8,40 €
Mart n1	F. 6260630	24,22 €
Hortalizas Etxeberira	F.12844/7380	24,60 €
Lyreco	F. bulego materiala	451,46 €
Wikai	F.17487	112,10 €
Goiener	F. eskolako argia uztaila	446,43 €
Goiener	F. udaletxeko argia uztaila	355,55 €
Codisna	F. hipoclorito erosketa	199,65 €
Iberdrola	F. urberoa	8,46 €
Ascensores Arga	F. 11549	203,28 €
Iberdrola	F. Argiztapen publikoa uztaila	279,90 €
Iberdrola	F. Udaleko pisua	11,81 €
Mari Tere denda	F. seiluak	135,60 €
Urzubi	F. materiala	123,64 €
Iberdrola	F. Argiztapen publikoa	608,58 €

Serlimpia	F. 250416	375,10 €
Lorenzo Otamendi Artola	F. 1101	112,40 €
Baiza Motor	F. I25/2161	47,49 €
Codisna	F. 25.436	199,65 €
Ofico	F. F253315	94,32 €
Comercial Fervis	F.2464	197,13 €
Rekalde zurgindegia	F. 748-25	601,53 €
Brico Depot	F. Udalerako pinturak	78,55 €
Greenice	F. Udalerako argiteria	191,75 €
Zonaferreteria	F. Arketa boca incendios markatzeko	51,10 €
Corticolors	F. Eskolarako estorea	132,45 €
Pc componentes	F. Musika eskolarako kalefakzioa	134,98 €
Vodafone	F. Abuztuko kontsumoa	212 €
SORGINTXO HAUR ESKOLAKO LEHEN ZIKLOA		
Maite Harategia	F. Uztailleko bazkariak	546 €
	DENETARA:	9.177,19 €

Lehendakariak fakturak bozkatzera ekarri eta udalbatzan diren kide guztiek aho batez onartu egin dituzte.

6. GALDERAK ETA ESKAERAK

Ez da ez galdera ez eta eskaerarik egin.

Arratsaldeko bederatziak laurden gutxi direnean, bilkura amaitu eta altxatu egin da, idazkaria naizen honek ziurtatzen dudana.